

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Iruñeko Arte Eskolako ikasleek arte-instalazio bihurtu dute 130 urteko Libanoko zedro bat

*Solana eta Elizalde kontseilariak inauguratu dute gaur proiektua Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko Lorategi Botanikoan*

Ostirala, 2018.eko azaroak 9

Hezkuntzako kontseilari María Solanak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioa kontseilari Isabel Elizaldek inauguratu dute gaur eguerdian [Bertizko Jaurerriko Natura Parkean](#), bertako lorategi historiko artistikoan kokaturiko ehunka urteko zuhaitz batean [Iruñeko Arte Eskolako](#) ikasleek osatu duten arte-instalazioa. Ekimen honi esker, zurezko eskulturen erakustoki bihurtu dute dagoeneko ihartuta zegoen 130 urteko Libanoko zedroa.

Inaugurazio ekitaldian parte hartu dute, halaber, Iruñeko Arte Eskolako zuzendari Pedro Sorbet Recalde; Iñaki Otsoa, Héctor Urra eta Zuriñe Urbeltz irakasleek eta Teknika Eskultorikoen zikloko berrogei ikaslek. Natura Parkearen arduradun Gregorio Oyaregi ere bertan izan da, zenbait teknikarirekin batera.

Elizaldek azaldu duenez, natura, artea eta hezkuntza lotzearen garrantziaz jabeaztea izan da esku-hartzearen helburua, "eta horrela, zuhaitz bikain hau biziberritu ahal izan da. Zuhaitzaren ikusgarritasuna kontuan harturik, Natura Parkearen kudeatzaileek alearen aparteko neurrien oroimenezko aztarnaren bat uztea planteatu zuten, eta ondorioz, esku-hartzea ezin zen mugatu alea kendu eta beste batekin ordezkatzera".

Bestetik, Solanak eskerrak eman dizkio Iruñeko Arte Eskolari egindako ekarpenagatik, izan ere, haren esanetan, "helburu berbera duten eragile eta diziplina desberdinen arteko lankidetzak beti funtzionatzen du. Horren adibidea dugu ingurumen-arteari buruzko hezkuntza, ikerleei



Solana eta Elizalde kontseilariak zedroaren aurrean, gainerako partaideekin batera.

natura-ingurunearekin elkartu eta beraien lanak ikasgelatik kanpoko natura museo batean erakusteko aukera eskaintzen dien neurrian”.

Esku-hartze honetarako, neurri apartak dituen Libanoko zedroa erabili da: 31,5 metroko altuera eta 148 cm-ko diametroa 1,30 metroko altueran. Zuhaitza, duela 130 urte landaturikoa, ihartuta zegoen, eta ondorioz, bisitarien segurtasuna bermatzeko neurriak hartu behar izan dira, istripuak gertatzeko arriskuak deuseztatuz, alearen ordezkapena planifikatzeaz gain.

Iruñeko Arte Eskolaren proposamenak enberraren hamalau metroko zatia mantendu du, zuhaitzaren adarrak garrantzitsuenekin batera. Bertan, bost horma-hobi zulatu dira, eskultura zikloko ikasleek eskualdeko faunari buruz egindako artelanak ikusgai jartzeko. Lanak 2018ko irailean bukatu dira.

### **Zedroarendako bizi berria**

Eskualdeko zenbait artistarekin solastatu ondoren, 2017an zuhaitza [Iruñeko Arte Eskolaren](#) esku uztea erabaki zuten, izan ere, Parkearen arduradunek adierazi dutenez, “gure kezkek eta gure nahiak interpretatzen jakin zuten”, eta egundoko potentzialtasuna eta lan egiteko aukera hauteman zuten zuhaitzean [Teknika Eskultorikoan](#) zikloko ikasleentzat, Naturgune Babestuaren estrategia aintzakotzat hartuz.



Bertizen dagoen Libanoko zedroa, arte-instalazio bihurtuta.

Iñaki Otsoa irakaslearen hitzetan, *Bertizko Zedroa biziberrituz* proiektua da “orain arte egindako anbizio eta gogobetetzetik handieneko proiektuetako bat, lanaren tamainagatik, esku-hartzea egiteko baliatu den zuhaitz monumentalaren berezko edertasunagatik eta parkearen kudeatzaileek beharrezko baliabide teknikoak eta giza-baliabideak eskaintzeko eta ikastetxeko lan-erritmoak ulertzeko agertu duten jarrera onagatik”.

Teknika Eskultorikoetako formakuntza zikloaren arduradunek ziurtatu dutenez, “oso garrantzitsua da kanpoko eragileekin egiazko proiektuetan lankidetzan jardutea gure ikasleei dakarkien egiazko eskakizunagatik eta ingurunean artelanen bat kokatzeko aukeragatik”. Tailer horietatik ateratako beste lan batzuk ikusgai daude Burlatako Uranga Parkean, Zizur Nagusiko kaleetan edota Gabarderal herrian.

Libanoko zedroa egokiteko lanek 6.600 euroko aurrekontua izan dute; zenbateko horren zatirik handiena zedroaren adarrak eta adaburua era kontrolatuan kentzeko erabili da.

Hauexek dira egun ikusgai dauden artelanak: Hontza (Camilo Castaño Parra); Sai Zuria (Luis Ascunce Ansorena); Garrapoa (Natxo Loyola Eraso); Hartza (Marta López Antón); Amilotx Mottoduna (Bea Itoiz Mugueta); Otsoa (Estefanía Rubio Alfaro); Azeria (Tasio López de Gereñu Chocarro) eta Hegaztia (Larraitz Ruiz Zeberio).